

## EIBAR

### Txirrindulariak direla ta

Martxoaren 28an, «Criterium» dalakoa zala ta, Ixua gainean ginen goiz erdian. Beharbada, ez txirrindulariak ikusteagatik, Igande goiza pasatzeagatik baino. Hotz ikaragarria jasan\*, salda garbia hartu (hain garbia ze, han egoen jendearentzat, lukainkarik ezean, ura ezartzen cutsoen eta) eta hiru ordu inguru zutik egon. Ha zan plana, ha!

Dana dala, iraganak iragan\*, pozik asko jaitsi ginen, aspalditxoan hainbeste euskera entzuteke\* gengozen eta. Ha zan gazteria, ha: barra barra euskeraz ziharduan gazteria, hain zuzen! Bizkaitar asko zan, asko eta asko, ia gehienak. Eta benetako bizkaitarrak, Markina eta Durango aldekoak. ANAITASUNA txartela ere makinatxo bat autotan erantsia ikusi ahal izan genduan. Era horretako publikoarekin bai esan daikegula, gure artean erutzen diren probak, direnak direla, gure gureak direla. Pozik jaitsi ginen, bai, Ixuatik bazkalorduan; metara nor iritxi\* zan lehen jakin ez bagenduan ere, pozik jaitsi ginen.

### Inkesta bat

Bizkaitar gazteen artean egin dan inkesta\* batetan, ehunetik hogei ta hamarrek ondo erixten ei deutsoe Ingandeetan mezatara joateri. Ehunetik hogei ta sei ohituraz joaten ei\* dira, % 10 zeresanagatik; % 16 zeredozer egitearren; eta % 8k denbora galtzea dala dinoe. Batez beste, gehienek ez ei dakie zertara joaten diren mezatara.

Halan eta guztiz ere, gure eritziz, inkesta baikorra dogu hau. Interesgarria lizateke, inkesta hori non egin dan jakitea, Markinan ala Sestaon esate baterako, zenbaterainoko balioa dauan jakiteko.

### Bernard da Costa

«Diario Vasco» egunkarian Irakurri dogunez, «Los adioses de la gran duquesa», presenteon Parisen arrakasta\* daben antzerkietatik bat dozue, Poche-Montparnasse teatroan antzeztua. Bernard da Costa, beraren egileak, euskeratu behar ei dau dalako obra hori. Bere deituragatik besterik badirudi ere, euskal jatorrikoa ei da, eta euskeraz oso ondo ei daki. Guk idazle horren berririk ez daukagun arren, Juanitok eukiko dau akaso, bere «Escritores Euskéricos» katalogoan sartzeko.

ALBISTARIAK